

Ganer hustea

A M A I U R E P H E R



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AMAIUR EPHER

Ganer hustea

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Ogia eskura izanagatik, jendaila hori ezkurren jateko bezain gizagaldua ote da?

Zizeron

Uda hondarra, buruileko azken ostirala. Bagoiak estudiante etxezuloz beteak. Gazte guzien artean, Sophie, 41 urteko Biologia irakaslea Pessac-eko François Mitterrand kolegioan. Laugarren asteburua du segidan gurasoenerat jausten dela. Aitatxi hil zaionetik badu zer egin Lapurdi barnealdeko familiako etxalde zaharrean. Estudianteek baino gehiago segurik, oraindik lehen kopien zuzentzerik ez badu ere. Beharrik. Ezin baita lan egin halako saldoaren erdian.

Badaki ondoko asteetan bagoiak hustuko direla, ez baitezpada gazte horiek oro ttarrotzen hasiko baitira, baizik eta erritmoa ezin harrapaturik edo ibilbidez tronpaturik, anitzek ikasketak utziko baitituzte. Sophiek gogoan du, garaian, soziologia edo psikologia fakultateak zuela holako fama bildua: bigarren hilabetea jada, ikasleen herena ez omen zen anfiteatrorat gehiago agertzen. Burtsadunak TD-etarat behartuak bai, baina ahalketurik urtea pasatzen zuten alfer. Baliosenek lan bat atzematen zuten hala ere, hobenaren estaltzeko baino gehiago, sos beharrez. Maiatz ala ekainean erortzen zen sententzia. Emaizten gutuna etxerat heldu aitzin, gurasoei egoera salatu behar... Ez zen Sophieren kasua izan, alabaina.

Tenorez heldu da trena Baionako geltokirat. Jendea satisfos atera da bagoitik, etxeratzeak dakarzkion tripako kilikak lagun, aitzineko asteetako grebek eragindako panikoa ia-ia ahanzteraino. Euforia fite erori zaie gehienei, euria tzir-tzir-tzir ari du eta.

Sophiek urrunerat ikusten du Clio urdin zuhail zaharra, warningak kliskaka. Aita beha du barnean gotorturik. Berinen kondentsazioaren giblean irudika dezake, bi eskuak bolantaren gainean, bizkarra konkorturik, edonoiz abiatzeko prest. Bordelen baino freskoago da Baionan. Clioan, berriz, aro tropikala. Baliza errotaduna gibleko jarlekuen gainean pausatzen du Sophiek, edo hobeki errateko, presaka botatzen.

—Ez zena lekuri aski kofrean? —agurtu du aitak.

—Astiri on, aita... —ufatu dio etsiturik alabak, aitzineko jarlekurat ernatzen dela sobera busti gabe.

Aitaren marmarrek bere funtzioa betetzen ez duen aire girotuaren burrunba gainditu ezinik, etxerat buruz abiatu dira. Oren erdi eskaseko afera beharko lukeenak oren bat iraunen duela badaki Sophiek: aita ez da Schumacher, eta aro triste horrek ez ditu aparantziarik ere lasterrago ibiltzen lagunduko. Autobidean murgildu arte isilik egon dira, Aturri zeharkatu eta Hazparneko bidea hartu arte, hain zuzen ere. Urgazietako ateratzea gainditu berritan, autobidean ttur-ttur-ttur, elkarrizketa abiatu nahian ibili da alaba:

—Milesker aita... nola da ama?

—Badakin nola den... ezin geldirik egon, zangoa hautsirik ere... Xintxuketan ari nindunan eta oharkabeen tenorea heldu. Ez baita kasik hura abiatu hire xerka!

—Milesker jinik. Behingoan, trena tenorez heldu da...

—Milesker eta milesker... Ez duna besterik?

Hazparneko ateratzea hartu dute. Stoperat heltzean, aita asperturik:

—Aro honek ez din eskerrik ere!

Sophiek ezpainak plegatuz erantzun dio, mutu.

Gerezietarat heldu arte ez dute besterik gehitu. Aitak autoa garajeen sartu aitzin atera da Sophie, maleta eskutan. Sukaldera jo du zuzenean. Badaki han kausituko duela ama. Ez da tronpatu. Aita ere ez. Makuluak mahaiaren kontra orekan utzirik, ama zartaginarekin ari da lehian, arroltze moleta ezin deslotuz.

—Sophie! Etzanala zartagin herdoilgaitzik eros, hik dunan pazientziarekin...

—Gau on, ama.

—Gau on, bai, barkatu.

Bi pott trukatu eta Sophie sukaldetik jalgi da berehala, beldurrez eta amak berriz ere tefloizko sukaldeko tresneria izanen duen partida, PFAS eta istorio. Bi soseko solasak afari denboran segituko dituztela tazituki adostu dute, beraz. Alaba haurtzaroko ganberarat doa, pusken pausatzerat.

Kafe termo-ontzitik likido beltza kikarara nola isuri behar den erakutsi dio amak Sophieri. Alabak, badakiela, halakoak erabiliak dituela jadanik, irakasle formakuntzetan ez zaiela besterik eskaintzen. Eta bere buruaren zerbitzatzen hasi da amaren azalpenak oro jasateko bezainbat izpirituaren pizteko. Ama-alabak prest dira, norbait agertuko zain. Goizeko zortzietatik jendea igurikatzen dute egun guzira. Ateri da gaur, baina bazterrak oraindik bustiak dira. Ateak zabal-zabalik, barrukian instalatu dituzte salgai guztiak. Koherentzia gutiko zirkuituñoa proposatua zaio bisitariari, altzariak tamainaka hemen, burdineria hor, laborantzako tresna zaharkituak han; eta erdian, kafea eta bi etxeoandreak. Logika ez bada arras argi ere, txukun-txukun jarria dute barrukia eta gauza bakoitza non den badakite biek ala biek. Izan ere, aitatxi hil denetik, hainbat astez aritu dira amaren sortetxea husten. Zenbat gauza aldatu diren hilabete bakarrean! Ehorzketa jendetsuaren ondotik –lekondar gehien-gehienak han ziren, makear franko ere bai–, kolazionerat agertu diren balizko laguntzaile tripa goseek hitza jan dute. Beso eskasean, beraz, eta amaren manupean, aita-alabek hondakindegirat etengabeko joan-jinak egin dituzte, sal daitekeena baizik ez atxikiz.

Espero dute sailkatu dituzten puskak oro partituko direla, merke saldurik ere. Egia erran, Sophiek interneten bidez saltzea hobetsiko zukeen, karga guzia ez balitz amaren bizkar geldituko. Ama ezindurik, ordea, ez dezake bere buruari halakorik onar. Argi du, zangoa hautsia izateaz gain, aitaren eta bereziki, anaiaren laguntza eskasak are ezinduago egiten duela ama. Hein batean bederen, aita egina du bere parte. Anaia inutilak laguntz baleza! Oraindik aditzen du buruko zoko batean haren litaniaren oihartzuna, etxearen salmentaz arduratzen dela, ez baita guti! Gogoia lioke bortizki erantzuteko hori duela lana, den mendrenekoa dela egiten ari dena.

Sophiek ez zuen etxea saltzeko gogorik, baina, ez zuen kanorerik ere Bordele utzi eta etxearen arraberritzen hasteko. Erretreta urrun eta xintxuketarako gogo eta kuraia guti; anaiak bezala, funtsean. Eta oraindik gogoan du etxe horrek duela hogeitun bat urte nolako buruko minak eragin zizkion familiari.

2000 hamarkada hastapenean, Aitatxi aspaldi alargundua zen, eta segidarik gabe, –suhia Crédit Agricoleko Hazparneko kesian ari zitzaion eta alaba herriko etxean sekretario; horien seme-alabek, berriz, beste bide batzuk hartuak zituzten, Gereziatik ahal bezain urrun– laborantza lurra auzokoei saldu zizkien. Piarresek erosi zizkion gehienak, belaunaldiz belaunaldi Lekornen egon zen etxetiar familia bateko ondorengo batek. Luzaz artzain soil ibili ondoan, bertan plantatu nahi zuen, eta lurra

etxearen inguruan ukaiteko gisan, murrueen erostea proposatu. Sophieren gurasoen presiopean ez zen halakorik gertatu, ordea. Lurrak baizik ez zituen eskuratu, eta handik pare bat urtetara, haietako batean yurta bat instalatu.

Sophiek ez zuen sekula gurasoen beto horren zergatia ulertu. Behin amari galdegin zion eta hark erantzun Yannick-ek –Sophieren anaiak– noizbait segida hartu nahi balu ez zizkiotela aukerak hipotekatu nahi, bost urte zituelarik traktoreak biziki maite omen baitzituen. Kalkuluak fite eginik ere, baieztapen horrek ez zuen zentzurik; alde batetik, lur guziak salduak baitzituzten, eta bestetik, Sophie eta Yannick jadanik Bordelen baitziren aitatxik erretreta hartu zuenean. Gainera, ez ziren etxe beharretan: gurasoek familiako lurretan eraikia zuten etxea laurogei hamarkadan, etxondotik berrehun metrotara. Eta hori guziarekin ez balitz aski, haurrek etxetik partitzean hustu lekuan aitatxi har zezakeen apartamentu bat bazuten ondua. Dudak argitu gabe, geroztik ere hainbatetan entzuna zuen ama Piarresez eta haren yurtaz zernahi erranka. Maixaz ere bazuen ele ederrik, Piarresen ama gaixoaz, semeak lurrak erosi eta fite zendu baitzen hartaz.

Goizeko hirugarren kafea klikatu orduko, amak ohar bat egin dio, otoi garbi uzteko mahaia. Sophie doi bat gaitzitu da, infantilizatua sentitu da beste behin. Iruditzen zaio edozein gauza eginik ere, gaizki ari dela, edo puxuluan dela. Hamarrak dira, eta orain arte agertu diren apurrek ez diete deus erosi. Makuluak lurrean eta ezinduaren asperduraz gainezka mahaiairi kontra jarria den amaren erasia azken asteetan metatu frustrazio guziaren bizkar ezarri gogo luke alabak, baina, bulta ilun batean sartuz bezala, bere buruari galdetzen dio ez ote dion erreportxatzen haurrik ez munduratu izana. Ez dio gordinki halakorik egotziko, baina, badaki nola anaiari zuzentzen zaion, nola seriozki hartzen dituen aita familiakoa bere emazte alkoholiko eta bi seme gastatuekin. Hots, nola heldu bati bezala ari zaion Yannicki eta haur bati bezala berari. Ala alaba eta amaren arteko harremanak ezinbestean horrelakoa izan behar du?

Ez dio aipatu, duela bost bat urte, obozitoak izoztu zituela, Frantziako parlamentuak bozkatu bioetikaren legeak ahalbidetu orduko. Epeei zegokienez muga-mugan ibili zen, baina berehala hitzordu bat erdietsi zuen Bordeleko Pellegrin ospitalean. Anestesiapean kendu zizkioten gametoak. Oraindik oroit da, pare bat asteko sabelpeko minaz, artetan aro hezeak berpizten dion oinaze ankerraz. Ez daki orain zergatik hori darabilen gogoan. Menturaz, asteazkenean jaso duen deiarengatik. Ordulari biologikoa aitzina doa tik-tak, tik-tak, eta kontserbazioa luzatzeko deialdiari ez dio berehalakoan erantzun. Nagitasunaren eta nekearen arteko sentimendu bortitz batek bultzaturik bezala, ireki gabe utzi ditu azken asteetako ospitalearen e-mailak. Asteazkenean, hamarrak eta laurdeneko pausa denboran, Akitaniako Emankortasunaren Zaintza Zentrotik deia jaso duen arte. Zigarreta itzali eta lankide erretzaileetarik apartatu da zenbakia ezagutu orduko. Telefonoaren beste puntan boz maskulino batek berriz ere azaldu dizkio nondik norakoak. Beste mansplainer bat, pentsatu du. Kurtsoak berriz abiatzen direneko txirrinak jo duelarik, Sophiek gizonaren azalpenak moztu ditu. Baietz, urteroko berrogei euro eta berrogeita hamar zentimoak pagatuko dituela. Gizona, gisa horretan moztua izateari ohitua ez bailitzan, hitzak aurki ezinik gelditu da. Eskegi eta ikasleen bila abiatzean, osasun langileari lau urte gelditzen zaizkiola ez oroitarazi izana eskertu dio mentalki, gaitzeko kolera piztu dionari jendetasun zerbait aitortuz bezala.

Beharrik, balizko lehen “bezeroaren” etorrerak laster gogo ilunak argitu dizkio. Ama altxatu da, berehala, Sophiek makuluak biltzen dizkiola. Bisitariak kadirak bilatzen omen ditu, eta azkenean, barrukiaren ateraino hurbildu duen furgoiaren kofrean lekua duela-eta, egongelako mahai apal bat ere hartu die. Dena hogeita bost euro meharren truk. Amak begi kliska konplizea luzatu dio Sophieri, esker onez.

Hamaikak aldera, gizon eder bat agertu zaie. Bera baino gazteagoa dela errango luke —35 bat urte badituzke—, baita ezagutzen duela ere, baina mapa mentalean ezin kokatuz ibili da. Ama-alabak buru keinu soilez agertu eta, altzarien artean sigi-saga abiatu da gizona. Amak Piarresen semea dela zehaztu dio. Bixente, berriki dibortziatua. Emaztea hurrekin joan zaio goiz batez, batere potretik gabe:

—Ez dun estonatzekoa —gehitu du —funtsean, aita bezain kasko gogorra dun; hari ere ez zitziakonan luzaz egon Jeannine. Gure lur guziak erosirik ere, fortunak ez din gizona egiten! Ze miseria... Begira ezan hirurogei urtetan bakarrik yurta hartan!

Sophiek ama mintzatzerat utzi du, deus erran gabe, eta bere baitan eskapatu da oroitzapenen arakatzeko bezala. Jeannine ama eta Bixente semea doi-doia gurutzatu zituen hurrean. Artetan etxaldean agertzen ziren, igande arratsaldearekin. Neguan, bortutik jautsi ondoan, Piarresen aitatziri lur batzuk alokatzen zizkiolako estakuruarekin heldu zitezkeen. Ontsa oroit bada, Hazparnen zuten bizitokia. Emazteak utzi zuelarik, orduan baizik ez zuen yurta eraiki Piarresen. Baina, garai horiek urrun zaizkio Sophieri, ordu hartan Pariseko aldiri xarmagarrietan baitzen, irakasle lanetan hasi berria.

Amari klasismoa dario, berriz ere:

—Aitatziri lurrak arrunt merke erosi zaskotenetik beste kastakoak baitira etxetiarrak, burua laster hantu zioen...

Gurasoen auzoarekin dituzten harremanez axola guti du Sophiek, baina jakin nahiko luke ea Bixente ardura ikusten duten. Amak zehaztu dionaren arabera, Piarresen yurtan bizi denetik, bekan baizik ez zaio heldu semea. Horretarako beharbada, ama harritua da Bixente etxalderaino hurbildu izanaz. Are bitxiago egin zitzaion agorri hondarrean, Dabbadienerat, Hazparneko beilatokirat, aita zenaren bisita egiterat agertu zirenean Piarres eta semea.

Luzaz barrukiko zoko batean egon ondoan, amaren lagun bat agertu denean baizik ez zaio hurbildu Bixente bi eleren egiterat. Sophiek denak argiago ditu buruan, auzoen arteko harremanen enbor eta abarrak xedarraturik bezala. Usaian, fisikoki erakargarriak zaizkion gizonek doi bat aztoratzen badute ere, bere buruaz nahiko segur, esaldi soila errazki ahotik jalgi zaio:

—Nola zira, Bixente? —politeziazko galdera baino interesatuagoa ematen du, menturaz, bozaren eztitasunarengatik.

Bere izenaren entzuteak doi bat kordokarazi du gizona, Hazparneko karriketan gurutzatu balira ez baitzukeen Sophie ezagutuko. Arras herabeki erantzun dio auzoko semeak. Ez du amak deskribatu dion famaren itzalik ere. Haurtzaroko begi argi eta erneek ez dute pindarrik galdu, eta uda osoan belarretan higitu —Sophiek hala uste du, bederen— larru beltzaranak dir-dir segitzen du. Pagatzeko momentuan, atzemandakoa erakusten dio Bixentek: mihimenezko zare ttipi bat, eta barnean, lokomotorra baten miniatura.

Aitzineko larunbatean, aitatxiren ganerra husten ari zirela, hainbat orenez bertan atzemandako zuri eta beltzezko argazkiei so egon ondoan, ohartu zitzaion tren ttipi horri. Lokomotorra eta hiru bagoi. Amak bota zitzakeela erran zion, Yannicken haurrek bazutela jostailurik aski, baina, alabak ezetz, ganer hustean norbaitek har ziezazkiekeela. Sophiek lokomotorra gogotik berarekin eramanen zuen, Bordeleko apartamentuan aitatxiren objektu bat atxikitze gisan, baina lokomotorra gabe bagoiak nekez salduko zituztela pentsaturik, bagoi bat baizik ez zuen hartu. Ikatza karreatzen zuena hautatu zuen. Balkoiko mahaitxoan hautsontzi gisa erabiliko zuela otu zitzaion, lurrezko jogurt-pote ttipi lauburudunaren orde.

Eskuz egindako zarea aztertu du eta pieza polita dela onartu dio Bixenteri. Ttipitan, amaxik horrelakoen egiten erakutsi ziola erantzun dio horrek, doi bat gorrituz, haurtzaroko sekretu bat salatzen balio bezala. Irriño bat eskainiz, Sophie urrikaldu zaio bat-batean: dibortzio gogorraren zera hori gogoan, pentsatu du Bixentek lokomotorra erosten duela hurrei sorpresa bat egin nahian.

—Beste bi bagoi ere baditugu. Arratsaldean edo, berriz pasatu nahi baduzu...

—Ez ez, lasai, honekin aski —eskertu du Bixentek berrogeita hamar euroko billete bat ateraz.

—Xeherik ez dugu... — gezurra bota dio, arratsaldean berriz pasatzerat akuilatuko duelakoan.

—Hau ezin dizut berrogeita hamar euro petik erosi, kristoren balioa du... —azaldu dio zintzotasun osoz bezainbat kolekzionistaren begi zorrotzez, lokomotorra pieza arraroa delakoan, edo sinpleki, auzoekin harremanak hobetu nahian.

Sophiek amore eman du. Errebantxa gogoz dabil, hala ere. Seduktoare hoberenak ez al dira negoziatzaile onak?

Eguerdirako ehun bat euro lorturik, barrukia ongi zerratu eta etxerat buruz oinez abiatu dira ama-alabak, autoa etxondoan utzirik. Medikiak gomendatu dio doi bat ibiltzeko, makuluekin bada ere, ez geldi-geldirik egoteko.

Yurtaren ondotik pasatzean, Sophie bi autoei ohartu zaie, bata Piarresena, bestea, segur aski, Bixenterena. Alaba airean sentiturik, amak galdegin dio zer duen gogoan. Sophiek deus ez duela erantzun dio, baina, matelak epeltzen sentitu ditu.

Aitak bazkaria prestatu die: etxeko lasañoak. Bazkaldu gabe komunera joan eta handik berriz sukaldera datorrela, ganberarat sartu da Sophie, ikasle zeneko bulego ttipiaren gainean pausaturiko bi bagoien begiztatzerat. Bata zaldiz betea da, bestea, aldiz, gariz. Izialdura batek bultzaturik, intziri bat bota du eta kabalak daramatzen bagoia zakarrontzirat bota.

Zaldiek Philippe gogorarazten diote. Zaldiak maite dituen gizona. Beraien arteko txiste higatua errepikatu dio bere buruari. Parisen urte batzuk egin ondoan, Normandian ibili zen Sophie. Philippe, letretako irakaslea, lankide zuen bertan. Lankide eta laster ohaide ere, bizilagun bilakateraino. Lau urtez ibili ziren elkarrekin. Biek mutazioa lortu eta Bordelen elkarrekin instalatu ziren. Baina haurren ukaitea seriooki planteatu orduko, lauhazka eskapatu zen putruna. Harremanaren bukaeraren lehen zantzuak nabariturik ere, bereizketa biziki gaizki iragan zuen Sophiek. Profezia baten biktima sentitu zen. Berrogei urte inguruko emazteen patuaren errepresentazioaz oso kritiko ibilia zen beti, baina berak ere ez zuen bere burua destinu petral horretatik askatu. Oroit da nola behin pataska izan zuten zinematik ateratzean, bereizi baino hilabete pare bat lehenago. Protagonista Sophieren adintsua zen, Virgine Effirak edo Mélanie Thierryk interpretatua, subjektu bilakatzeko eginahalean tematua. Philippek –seguraz ere, feminismorik berriki hurbildurik– gizonek ere problema existentzialak izan zitzaizketela iradoki zion zinematik ateratzean, berrogeita zenbait urtekoek lehen bilan baten egiteko ohitura baitute: lana, bizi-esperientziak, bikotea, haurrak... zenbat gauza neurtu beharrak! Sophiek, berriz, zergatik dena gizonen mundura ekarri behar ote zuen galdegin zion. Eta gorputzaz, zer zioen gorputzaz? Zahartzeaz? Eritasunaren hersturaz eta heriotzaz? Philippek azken hauek minimizatu zituen malestrukeriaz, ala sinpleki, gaualdia salbatzeko esperantza inoxentez.

Sophiek zakarrontzirat begiratu du, eta aspaldi trenbidetik jalgi zen bagoia arroilan uztea hobetsi. Bagoi horaila, aldiz, gariz betea, goizean enoatzeko beldurrez liburu pare batez bete duen telazko tote bag beixean sartu, eta sukaldetat buruz luzatu du urratsa.

Zerua ilundu da, eta lauak irian, freskatu du. Goizeko arrakasta mehasta ez da gizendu arratsaldean. Ematen du ortzantzak jende gehiagoren hurbiltzearen esperantza urriak itzaliko dituela laster. Aita bederen aterpean dute Etxebarnenean lagunekin musean. Siesta egin ondoan, biak aldera, karrikarat buruz autoz partitzean, barruki aitzinean utzi ditu bi emazteak. Ate handien irekitzen lagunduko dituela erran die, baina biek haizatu dute haren presa sumaturik.

Ortzantza ustekabeko lekutik agertu zaie. Urrunean, orroaz entzun dira bi gizonen boz gizenak. Auto ate baten klaska. Bietarik bat ziztuan abiatu da. Autoaren burrunba gero eta ozenago hauteman dute ama-alabek. Barrukiaren ateen aitzinean gelditu da ibilgailua, arrasta golpe bortitzek lurrezko bide lohitsuari bi marka luze utziz, baita ziliporta batzuk ere barrukiaren murru aspaldi histuan. Berina doi-doi behekitu eta Piarresen Sophieren amari garrasika:

—Zer ostia kontatu dakon Bixenteri? —bota dio begiak herraz hanpaturik. Eta autoa berriz abiatu da, eztulka, oraingoan.

Eroturik bezala, amak makuluak bota ditu eta bere autoan sartu da. Hiraren negarrek betazalak dir-dir jarri dizkiotela, Piarresen autoaren gibeletik abiatu da. Sophiek ez zuen sekulan irudikatuko auzoen arteko harremanak horren txarrak zirenik. Amaren goizeko zinkurinak seriozkiago hartu ez izanaz damutzen da. Ez daki zer egin. Zertarat abiatuak dira bi brilili horiek? Amaren mugikorra kafe termoaren ondoan pausatua dela ohartu da, haren deitzerat entseatu denean. Goizegi da aitaren deitzeko, eta ez dio arratsaldea izoratu nahi. Bost minutuz igurikatzen du. Hamar minutu iragan dira eta deus ez. Ez dute istripurik izanen, arai! Laurden bat pasa da, eta lehen euri xortek akuilaturik bezala, ateak hetsi eta zalu abiatu da etxerat buruz, telazko esku-zakua espaldari zintzilaturik.

Yurtaren ondoan iragaitean, Bixenteren autoa datekeena oraindik hor dela ohartu da. Orduan, euria hasi du jauts ahala. Ez daki zer pasa zaion burutik, baina, etxerat buruz lasterka segitzeko partez, yurtan aterpea kausituko lukeela pentsatu du bat-batean. Atea jo du. Bixentek ireki dio, doi bat estonaturik. Sophiek eskertu du alegia hatsankaturik. Barrukiaren ilunean ez bazitzaion ohartua ere, yurtaren argi bahetuaren pean Yannicken eite zerbait nabaritu dio, kokots eta sudurrarengatik batez ere. Horrek doi bat aztoraturik, anaiaren berri guti duela otu zaio. Ez dute elkar deitzen ez bada erasiaka aritzeko. Aitatxiren ehorzketek baizik ez dituzte elkartu, azken aldian. Anaia burutik kentzeko ahaleginak egin ditu eta telazko zakutik bagoi horaila atera eta luzatu dio:

—Hona oparitxoa...

Bixenteren begiak piztu dira yurta argituz bezala. Mutikoaren lilurakortasuna hunkigarria zaio Sophieri. Azken finean, Bixentek ez du Yannicken itxura handirik.

—Milesker, ez zen beharrezkoa... kontent niz hurbildu baitzira —eskertzen du umilki.

Matelak bat-batean sutzen zaizkiola, Sophiek begirada desbideratzen du aurpegia gorde nahian. Sofaren ondoko mahaitxoan, Maixa, Bixenteren amatxiren potreta ezagutu du. Bixentek garagardo bat eskaintzen dio:

—Ez niz etxen, baina aita lasaitzeko artean badugu aizina...

Sophiek eskertzen du, eta potretetik hurbiltzen da.

—Hamahiru urte nituen amatxi hil zelarik —erraten dio Sophieren jakin-minari oharturik, garagardo botila ahoratuz, beste eskuarekin bagoi horaila haztatzen duela.

—Hil zenean, hainbat bagoi eskuratu nituen ondareztat. Bagoi bakoitzean hitz bat gorderik atzeman nuen, ustez ezagutzen ez nuen esku batek idatziak. Hitz bakoitza eguberriko datarekin heldu zen. Hamahiru bagoi orotaratzat... —pausa bat markatu eta berriz abiatu da: —Duela bi urte, emazteak hurrekin utzi naularik, depresiotik sekula aterako ez nintzela sinetsi dut. Orduan, entseatu niz bagoiak banan-banan lerrokatzerat. Aitarekin harremanak hobetuz joan dira, zuen aitatxi zendu arte. Aitak zuekin baketu nahi zuen... baina, uste dut horrek guziak gainditu duela.

Bixente negarrez lehertzen da eta malkoak aitzin besoarekin xukatuz, gehitzen du:

—Bazen garaia ganerraren husteko.

Piarresen autoa entzun da kanpoaldean. Sophie sofatik altxatu da, negarrez bera ere. Besoetan hartu gogo luke, baina goizegi da. Bixentek gariz betea den bagoia itzuli dio:

—Atxikazu, nik baino beharrezkoagoa duzu. Lokomotibarekin aski dut.

Sophiek bagoia onartu du. Beldurrez eta Piarres yurtarat sartuko den, atea zeharkatu du hitzik gabe, burua apal. Auzoa, ordea, autoan gelditua da, pentsaketetan galdua. Doi bat lasaiturik ematen du. Euri xortak malkoei nahasi zaizkie. Aita musean dateke oraindik. Ama etxean du zain.